Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Gregorio Biteri Mendieta

Legutio, Araba (1922)



Aurkibidea

Biografia



Legutioko Nafarraten jaio zen. Aita Elosuko Olalde baserrikoa zuen, eta ama Aretxabaletako Bedoña auzokoa (1966. urtetik, Bedoña auzoa Arrasateko udalerrian dago); sei seme-alaba izan zituzten. Gregorio Urrunaga auzoko eskolan ibili zen gerra hasi zen arte. Gerran etxetik ihes egin zuten ganadu guztiekin. Elosura joan ziren lehenengo, eta gero Ubide, Zeanuri eta Bilbotik pasatu ondoren behi bakar batekin itzuli ziren. Etxea erreta aurkitu zuten eta harrezkero Elosun bizi izan dira. Baserrian eman du bere bizia: etxean, basoan eta idiekin garraio lanetan. Elosuko Lola Garmendiarekin ezkondu eta seme bi dituzte.

Zintak

LEG-006

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-04-16
- **Iraupena**: 82 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

LEG-021

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2000-03-07
- **Iraupena**: 45 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

LEG-036

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2001-03-01
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

LEG-060

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2007-07-28
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

LEG-064

- **Proiektua**: Gipuzkoako zuhaizti motzak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre 'Marron', Jose Ramon - Aragon Ruano, Alvaro
- **Data**: 2011-01-31
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Gipuzkoako Foru Aldundia

Pasarteak

1. Nafarrate gaur, Urrunagarekin bat eginda

- **Erref**: LEG-006/002
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:01:16. **Bukatu**: 00:03:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Nafarrate gaur egun Urrunaga auzoarekin bat eginda dago. Nafarrateko errota Urrunagako urtegiko urpean geratu zen. Urrunagako eskola publikoan ikasi zuen, erdaraz. Primo de Riveraren garaia zen orduan. Gerra hasi zenean bukatu zitzaizkion eskolok.

Transkripzioa
- Ta Nafarrate hori oin, ya urpeian dau gehixena, ezta?
- Bai... ixena Nafarrate... bere izena euko berdin euko dau, baia fusionauta dau Urrunagara.
- Eta hor, pantanua ein euenien etxe asko urpeian geratuko ziren, ezta?
- Ez, bat bakarrik...
- Bat bakarrik?
- Zipriena ta... etxia.
- A, Ziprirena?
- Ha behien eguana, zeleidxen, ta ha hartu eben urek.
- A, osea ke orduen Ziprina bakarrik geratu zen urpeien.
- Bakarrik, bakarrik urpeien, bestiek goidxen eguazen.
- Ta orduen, eta bestiek oin ya Urrunagan sartuta daoz?
- Bai...
- Eta eskolan, Nafarraten ibili ziñan?
- Urrunagara...
- A, Urrunagan?

- Urrunagan...
- Ze eguen, auzo eskolia edo zela(n) zan... eskola publikue?
- Eskola publikoa.
- Zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
- Orduen ez dakit /eztait/ seigez ala zortzigez hasten giñen be!... zortzigez uste dot!
- Eta eskolie euskeraz edo erdaraz eitten zeben?
- Bai! Erderaz dana!
- Dana erderaz?
- ...nik euskeraz... Lehenengo txikiten euskera ikasi nemen amagaz ta aitegaz, baia... gero erderaz dana!
- Ya, ya... eta, klaro! Zu, edozein modutan, zortzi urtekin eskolara fango ziñan, milla bederatziehun ta hogeita hamarrien hasi ziñan zu eskolan? Hoi zan Primo de Riverakin? Goguan dakozu hori?
- Bai... zeozer gogoratzen naz Primo de Rivera(r)en gauzak!
- Klaro! Zeatik Republika etorri zan milla bederatziehun ta hogeita hamaikan!
- Bai.
- Eta orduen eskolie, eskolak erdera, eta zenbat urte arte ibili ziñen eskolan?
- Hamalau urte arte. Bueno, hamalau, hamalau urte neukezenien gerriek urten eben eta han bukatu zan dana.. hamalaugez idxa ezebez!
- Ya, ya...

2. Urrunagako eskolara

- **Erref**: LEG-006/003
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:03:14. **Bukatu**: 00:05:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Betolatza inguruko maisu erdalduna zuten. Ikasle guztiak ez ziren euskaldunak. Urrunaga eta Nafarrete auzoetako umeek ikasten zuten Urrunagako eskolan.

Transkripzioa
- Eta orduen zu ibili ziñan urte bat Primo de Riverakin, eta bestiak Errepublikan?
- Hori ez dakit /eztait/ zelan izengo zan, ha orduan urtetako gauzak...
- Bai, zuk hor eskolan eta aldaketaik ez zeuen igerri? Primo de Rivera kendu ebeiñian...
- Aldaketarik ez zan han ezer igerri... bueno nik oin zortzi urtegaz ta orduen ez haz konturatu be eiten gauzak eta...
- Ya, ya... eta ze eskola klase emoten otsuen? Ze ikasten zeuen zuek garai hartan?
- Ba han irakurtzen ta... matematikak be bai! Ha maisu bat ego(a)n... matematiketan ona zan baia bestelan ez euken... hor Zirounek, Ziroukoa zan, herritxo bat hor dau, Ziriano, Betolatzati hareutxo, horkoa zala esaten auren /esateauren/ maistrue, maisue, ta ahuntzek zeintzen juaten zan hara liburuek besapeien hartuta.
- Maisua?
- Maisua!
- Kontxo!

- Ta nik auki nemen naure denbora gustidxen eskolara juan nintzenien...
- Euskalduna zan bea?
- Ez, ez ekidxen euskeraz.
- Eta zuek euki zeuen problemarik euskeraz eittiagatik eskolan?
- Euskeraz, berbarik bez!
- Baiña kastiguak edo eoten zien euskeraz eittiagatik?
- Ez, kastigoas ez, kastigurik ez, baia ez gemen /ezkemen/ euskararik eiten, erderaz! Erderaz danak!
- Ya, orduen han eskolan zebitzeiñok danok euskaldunak ziñain neskatilla-mutikuak?
- Bai, batzuk baekidxen euskeraz, baia askok ez ekidxen.
- Ya, eta zelan eoten ziñein, neskatilla-mutikuak danak gela baten? Danak leku baten?
- Danak leku baten, neskak eta mutilak eta danak, danak...
- Zenbat lagun? Akordatzen za zenbat lagun izango ziñein gutxi gorabehera?
- Ba han batzen giñen, bai, hogei edo hogeita bost edo holakoren bat...
- Osea ke orduan Urrunagara joaten zien Nafarratekuak eta Urrunagakuak?
- Bai.
- Beste auzotatik ez ziren joaten hara?
- Eske Nafarratetik goitik behera baia juaten gintzen lau saltoan gu!
- Zenbat denbora auen zeuen etxetik eskolara?
- Ba... ordu lauren, hogei minutu, hor...

3. Baserri batzuk urpean geratu ziren

- **Erref**: LEG-006/004
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:05:42. **Bukatu**: 00:07:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Aita Elosukoa zuen, gaur egun Urrunagako urtegiko urak hartutako baserri batekoa. Ama, berriz, orduan Aretxabaletakoa zen Bedoña auzokoa zen. Lau anaia Elosun jaio ziren, baina Gregorio bera eta arreba Nafarreten. Elosuko errota eta baserri bi geratu ziren urpean.

Transkripzioa
- Ya, eta zuek etxien ganaurik ero sororik ero bazeukatzuen?
- Bai, ganau, ganau asko gauken Nafarraten be. Aitek ganaderu ona zan, ta!
- Bai?
- Bai!
- Eta zuk etxian lana eiñagatik eskolara fan barik geraketan ziñan batzutan?
- Ez!
- Ez? Eskolara beti juan ziñan? Egunero juaten ziñan?
- Egunero .
- Nunguak zien zure aita-amak?
- Aita hemekua, Elosukoa!
- Aitta, aitta Elosukoa eta Nafarratera ezkonduta?
- Bai, aite hemekua, Elosukoa zan.

- Eta ama?
- Ama, ba, horko, Aretxabaletako, Bedoña edo zelan auken izena hor... bai, hangoa zan.
- Klaro, orduan Bedoña Aretxabaleta zan, oin Mondrague da!
- Oin Mondrago, bai!
- Aretxabaletako Bedoñakua? Eta aitta zela ezkondu zan Nafarratera?
- Hemen bizi ziren lau seme, lau seme hemen Elosun auki (e)bezen, ta gero han etxe behien erosi eben etxie lurrekin ta lurre, ba, askogaz, ta hara juan ziren biziten, ta han jaio gintzen beste... nire arreba bat, eta neu.
- Sei danera hazi ziñein?
- Bai, xei hemen Elosun, hemekoa zan bera, hemen jaiotakoa, Elosun! Aite!
- Etxe honetan?
- Ez, hor behien egoan baserri bat, urek hartu dau. Baserridxe, ederra baserridxe!
- Orduen, Gregorio eta beste bat Nafarraten. Orduen, Elosuko baserrixek pe geratu zien urpeian, e?
- Bai!
- Asko?
- Ez, errotie, haxe baserridxe, bi, ta beste be bat, hor, Garraztegi esate guntsen etxe bat, hiru!

4. Urrunagako urtegia Errepublikan pentsatutakoa

- **Erref**: LEG-006/005
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:07:46. **Bukatu**: 00:09:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Gregorio umea zela hasi ziren urtegiko lanak, eta Francok bukatu zituen. Errepublika garaian pentsatu omen zuten bertan urtegia eraikitzea. Aitaren jaiotetxeak Olalde zuen izena.

Transkripzioa
- Goguan dakozu zuk hamen pantanue ein auenien ze obra edo ze eon zan? A, karo, ez, ez, zu oindiok... zu oindiok jaixo barik zeontzen hamen urak etorri zienien, ezta?
- Bai, baie hemen idxa hori presiori eitekoa ni mutikotxua nintzela idxa, zera, garbitasunean presie eiteko eskonbruek eiteko eginda egoan, ta gero Francok bukatu eben, baia hori Errepublika denporan be, idxa pentsauta eguan eitie hor.
- Ta hori Francok akabau eben orduen...
- Bai.
- Ya, ya. Oseake ordun aittan etxia, zela euken izena aittan baserrixak?
- Olalde!
- Olalde! Gaiñera zuri oindiok Olalde esaten dotsue, ezta?
- E?
- Zuri esaten dotsue Gregorio Olaldekua, esaten dotsue, ezta?
- E?
- Zuri esaten dotsue Gregorio Olaldekua…
- Ez, ni ez, ni ez naz hangoa ta!
- Bai, bai, entzun dot nik nonbaiten, “zer Gregorio? Ta Olaldekua!”

- Ni ez naz hangoa ta, ni Nafarraten jaidxota nau!
- Ya, ya, oseake Olalde baserrixa, orduen?
- Bai.
- Eta oin urpeien!
- Dionisio dao han jadxota, hori Dionisio Biteri. Horren aite ezkondu zan etxera ta gelditu zan hor, baserridxen.
- A, ya! Dionisioatik orduen esan doste Olaldekua, klaro! Dionisioatik...
- Dionisio, Dionisio dao han jaiota... baserridxen...

5. Abade futbolzale eta txistularia

- **Erref**: LEG-006/006
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:09:27. **Bukatu**: 00:12:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Eskola denboran bolalekuan egiten zuten jolas. Pilotalekurik ez zen, baina futbolean jolasten zuten. Etxean hiru urtez egon zen abade gipuzkoar batek, Txomin Jakakortajarenak, egiten zuen arbitro lana. Abade honek txistua jotzen irakatsi zion Gregoriori. Gerraren ondoren euskaraz egitea edota txistua jotzea debekatu zuten.

Transkripzioa
- Eta, orduen, eskolok akabau zien, eta han eskolan ze jolas eitten zeuein garai haretan, ze jolas klase...?
- Jolas?
- Bai.
- Ba, han bolaleku bat geunken bertan, ta bolalekure juan ta han ibilten gintzen, marroka ta esaten zan...
- Ya, ya, marroka ...
- Batzuk alde baten ta bestiek bestin ta... ta txirikolan ta, kariziman.
- A, garizuman... txirikolan esaten dozue? Guk txirikilletan!
- A, txirikilletan, bai, bai!
- Zuek txirikolan, e? Hori zan garizumako jolasa bakarrik, ezta?
- Bai!
- Eta gero mendixen txorixek harrapaitten edo... ibiltten ziñein edo?
- Txoridxek harrapatzen? Ez... bueno, [afidxak] edo, bai.
- Eta garai hartan pelotan eta eitten zeuein hemen? Bazeukotzuen pelotalekuik?
- Ez egoan pelotalekurik...
- Ta elizpeian edo holan bez?
- Ez...
- Ta fubolian eta?
- Futbolien bai!
- Bai, eitten zeuein?
- Fubolien hemen ez, hemen ez, Nafarraten ta Betolatzan! Abade bat gaunken etxian, ta haregaz, hak beak arbitro eiten eben! Hiru urtien eon zan gaure etxien! Nafarraten! Ta famosoa!

- Zela auken izena abadiorrek?
- Txomin Jakakortajarena!
- Txomin Jaka! Ta orduen hori zeuek euki zeuen etxien apopillo?
- Gipuzkoakoa zan. Baia gero... txistua joten be irakatsi usten...
- A, bai! Kontxo! Abadiorrek?
- Abadiek, bai!
- Eta futbolzalia zan abadia?
- E?
- Abadia futbolzalia?
- Bai.
- Oseake harekin orduen txistua jo ta futbolian ein ta...?
- Bai, musika apur bet be ikasi nendun baia gero gerrie etor zan ta... ez txisturik eta ez ezez...
- Dana pikutaa!
- Txistue ez gehidxao... hartu bez!
- Kontxo!
- Kastigauta egoan euskeraz eitie ta txistuk eta horreik gauzok...
- Dana kastigaute, ezta?
- Dana kastigaute. Ta gerrie etorri zanien, ba, gero Nafarraten han be ez egoan gero... denporada [baten] egon ziren beratzi guarda zibil, abadien etxie egoan, ba abade-etxie bastante ona, ta gauk gauken mueblauta, ta han egoten ziren bedratzi goardia zibilok...

6. Gerrako istorio krudelak

- **Erref**: LEG-006/007
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:12:09. **Bukatu**: 00:15:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Gerra garaian, Elosu nolabait bi fronteren artean geratu zen. Elosuko herritar batek bere herriko 17 lagun hil zituen, tartean Gregorioren hiru senide. Komunisten "Batallón Parazagua"n zegoen herritar hori.

Transkripzioa
- Ta gero haik be joan ziren handik eta San Andres egunien sartu ziren hemeti Errepublikako zera, batalloi bat, Nafarraten, hemetik, ta hau, Elosu, egoan ba hau frente bidxen erdidxen, bueno! Frenterik orduen oindiñon ez egoan frente... leku baten gelditute ez egoan iñor, gerrillak moduen ba eguazen batzuk, egun batzuetan batzuk eguazen ta beste egun batzuetan beste batzuk hemen! Ta hemen herriko barbaro batek... ez daukazu zer pasau zan hamen? Ez dakizu?
- Ez, nik ez dakit!
- Hamazazpi hil ebezen hemeko herrikoak!
- Herriko bertako batek?
- Bertako batek, bai. Hemen egoan... gero sartu ziren, hona etor zan konpaiñia bat Francon aldetik etorri zan hona, ta batzuk alde batera joan ziren, ta bestiek bestera. Ta gero, horrek hemen egoan ba bat, ahuntzekin edo, Somorrostrotik edo nondik etorri zan, miñetan edo lan einda, ta hemen ibilli zan ba, bizi... be bastante ba... bastante txarto ibiliko zan. Semiek be baeukazen hiru edo lau, ta nire izeko, ta osaba ta beste lehenkusu bat hil ebezen!

- Kontxo! Ta zergatik edo?
- Boo! Ba, berak ze kargu emon utsien hor gorridxok berari...
- A, gorridxen izenien!
- “Batallón Perezagua comunista” bat, batalloi Perezagua komunista baten sartu zan, ta... inbididxe! Ta bengau zeben, bengau zeben! Bere auzoan bi etxe bi eguazen batera, ta holan ate bi, ta baten bera bizi zan, ta bestien tratante bat eta, ba ondo bizi ziren gauza, ganau asko ta... haik bost hil ebezen han! Andra-gizonak, seme bat, ta kuñetu bi!
- Jo! Joan eta garbittu?
- Danak! Hamazazpi hemeko herrikoak! Joe!
- Eta hori gorridxen izenian?
- Bai! Ba, hemen...
- Ta gero jentiak ze ein eben, Francon alde urten edo ze ein eben jentiak?
- E?
- Gero jentiak ze ein eben, herriko jentiak, Francon alde urten eben edo...?
- Ba, ta gero, ba, Francon alde, Francon aldetik joan zirenok Francon alde! Gero ba hemen idxa Bilbo hartu eurienien etorri giñen hona ta hemen eguazenak ya biziten, ba, gero hemen hartu genduen etxe bat, guk errentan, ta hor bizi giñen lau urtien ta begituten uskuen ba... ñoo! zer txarregaz! Baiña dana pasau zan ta...

7. Etxea soldaduen ospitale bihurtuta

- **Erref**: LEG-006/008
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:15:26. **Bukatu**: 00:19:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Azaroaren 30ean sartu ziren tropak Elosun. Meza ematen zegoen abadeak ihes egin zuen; ihesean balaz zauritu eta Gregorioren etxera eraman zuten. Han gurdian hartu eta Luku herrira eraman zuten. Soldaduek etxea ospitale bihurtu zuten.

Transkripzioa
- Zuek zer ziñein nazionalisten bandokuak edo?
- E?
- Zuek zer bandotan zeuntzein, nazionalistakin edo errepublikanuekin edo...?
- Gu... Nafarraten hemen eon zan, konpañia bat Elosun, soldauek, ta hotzaroan hogeta hamarrien, San Andres da, ezta? Ta hona sartu ziren, goxien goixeti, ta [Gasteidxen,] Nafarrateraiño etorri ziren. Ta abadie, hemen, abadie egoan, abade bat, Don Eugenio Ibabe, oindiño etxat ahaztu izena, ta tiroteoa hasi zanien, hemen mezie edo esaten egoan elizan, ta hortik, erreka ezkiñatik, ba, hanka iñ eben. Ta horti eliza aurretik ikusi euren hor doiela, han basora sartzen han behien, Nafarrateko hor Xiprin etxera joateko hor egoan baso bat, eta basoti sartzera doiela, sartu utsien bala bat holan aldamenetik, ta dxuan zan tarras zati baten, ta Xiprin aitek arkitu eben bidien. Iturrire dxoaten zan, han Nafarrateko bajadan eguan iturridxe, ta Romaldo joaten zan iturrire pitxer haundi betegaz iturrire dxoien uretan, erateko-ta, errekie eukien bertan etxeari joten, baia iturrire, erateko iturrire joaten zan uretan. Ta pitxarregaz doiela, abadea han jausita, bidien. Ta ekarri eben gaurera, ta horretan... hori abadie sartu baiño lehen etorri zan beste soldau bet hortik Sestafetik ago dana

apurtuta, gaurera dxo eben hak pe! Ta ni mutiko bat, oindiño hamalau urteko mutikoa! Ta laguntzen joan nintzen Urbiñera berari eroan dein kuretan edo eroan deidxen handi... Ta etorri nintzenien Urbiñetik etxien abadie, abadie gaurien egoan hiru urtien joiezena, Txomin, Txomin ta bestie hemekua, Elosukoa, han, ta ohien egoan eriduta; han kurau ta han ifiñi... hartu han beziñoak, naure beziñoak bi, joan ziren beragaz. Lukure eroan auren.
- Lukura?
- Bai. Lukura, handik Gasteizera eroateko. Gaure gurdidxen hartu, koltxoi bi be gauk ipiñi guntsezen, ta eroan auren! Ta bidxen bitartien, sartu zien hara, gorridxek esaten guntsenak edo esaten utsienak. Guk ez guntsen esaten sekule gorridxek baia beño, hori izenori eukien, gorridxek, beste aldekoak! Joe! Oin [esatea] hemen zer pasauko da hemen! Hori abadiori eroaten joan dala haik enterauten badire honeik! Ta etorri zan gaure ezaun bet, [Urkia], Ubidekoa, Jaime, ha abadiegaz hak berba iñ eben ta ez zan ezer pasau, ta “Batallón Meabe”, bueno, haik pe ezkerrak ziren baia bueno, jente ona, e! Jente ona! Ta han egon zan gaure etxien egoan abadie oindiñon hiru egunien eon zan han tiroteo baten. Lehenengoko morua eriduta be han ikusi nemen, gaure etxien aukien zera ifiñita kurak iteko!
- A! Ospittala modura?
- Bai! Han. Ta hori abadiori eroan auren!

8. Senideak heriotzatik salbatu ziren

- **Erref**: LEG-006/009
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:19:44. **Bukatu**: 00:23:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Berastegiko Txomin Jakakortajarena abadea hiru urtez eduki zuten etxean. Bi abade egon ziren eurenean, bata faxista eta bestea euskalduna. Erreketeek aita, anaia eta abadea hiltzera eraman zituztenean, nola salbatu ziren azaltzen du Gregoriok.

Transkripzioa
- Ta gero Bilbotik etorri giñenien, hori abadiori, hemen egoan abade, ta gurien eguana, Txomin, euskaldune, giputza zan, ta hori ba kazan-ta batera-ta ibilten giñen, baia bidxek eguazen, bat fasxistie zan baia bestie euskalduna, euskaldun elegantia! Liburuak eta iñ ebezen asko! Hor daukuz batzuk...
- Txomin Jaka esan dozu?
- Bai! Jakakortajarena.
- Zer herrittakua zan hori?
- Berastegi.
- Berastegikua, kontxo! Naparruako mugan dago.
- Jo! Berastegikoa. Baia oin kontauko dotzut zer pasau dxakun Berastegiko abadie... Setienbrien zortzidxe lehen andramaridxe! Oin be andramaridxe da, baia oin ez da jairik eiten!
- Arantzazuko jaixa!
- Arantzazuko jaidxe?

- Bai!
- Ba mezatan gengozen danok. Eta mutiko batek, hor behi-zeiñ edo egoan, ta hak entzuten eben “erreketiek hau” ta “erreketiek hori”, ta etxien zeozer entzunda, ni baiño gaztiagua zan mutikoa, mutiko majoa! Dios! “Erreketiek datoz!” sartu zan elixara, bildurtuta! Ta abadiek buelta iñ eben, lehen zelan mezia esaten zan hormara begire, ba ya... bestaldera eiñ, “geldi danok, e! Geldi!”. Ta mezie bukatu zanien, ba, urten biher danok, ta dana egoan kopauta, menditxo guztidxek erreketez ta soldauz beteta! Esan leidxen han zera... hartu biher daurela /bidaurela/! Ta danok elixaurrien egoan holan arkuen horma aurrien, zegoan landatxo bat aurrekaldien, ta han erreketiok fusillekin danak! Gau hor illadan horma kontran segun urteten genuenien horma kontran ipiñita! Danok! Ta lelengo-lelengo neure anaia, “venga, usted!”, ta preguntau utsien “¿cómo se llama?”, “pues Agapito Biteri”, “¡venga, con nosotros!”, jo, bigarrena aite! Ha be aparte, aurekana! Gero beste beziño bi ta bosgarrena abadie! Apartau eurezen! Ta bidien doiezela, nire anaiek entzun utsien erreketieiri: “¡en tal sitio, los vamos a liquidar a estos!”, ta lekue ta dana izentauta eukien, hor Arakan, menditxo bat egoan lehen, ta han menditxo ostien eguan txaraka bat, edo baso bat, eta “¡allí los vamos a liquidar!”. Ta batzuetan lagunek... gaztetako lagune, ha gero falangista ein zan Francogaz! Ta ha enterau zan zelan doiezen danak deteniduta ta bidera urten eben kotxiegaz. "Con estos respondo yo y estos a(de)lante, eh. Estos a(de)lante". Ta hak salbau utsien bizidxe.
- Koño! Bestela fuera, ezta?
- Hilteko preparauta. Alde batetik reketiek eta bestaldetik bestiek. Begitu ze gauza pasetan ziren hemen, e!

9. Gerratik ihesi

- **Erref**: LEG-006/010
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:23:52. **Bukatu**: 00:27:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Elosun hainbat herritar hil zituen gizonaren inguruko kontu batzuk azaltzen ditu. Gregorio meza laguntzen zegoela, bonba batek elizako horma jo zuen. Nafarratetik ganadu guztiekin ihes egin eta aitaren jaiotetxean babestu ziren, Elosun. Elosutik Ubidera eta handik Zeanurira jarraitu zuten ihesi.

Transkripzioa
- Zuk galdu zeben seniderik gerran?
- E?
- Gerran galdu zeben seniderik? Hil otsuein senideren bat edo parienteren bat gerran?
- Hemen, hor, gorridxek, hemeko Martzelino, bakizu zelan aukien apodoia erderaz? “El buey”.
- “El buey”, hori zan hiltzaillia?
- Horrek hil ebezen hamazazpi hemekuak!
- Eta hor, hamazazpi horrein artian euezen zure izekua ta zure osaba bat?
- Bai, ta lehenkusue be bai!
- Ta lehengusua. Ta hori zan ya gerria hasitta, ezta?

- Bai, hori ixengo zan, ba, urrillien hil auriezen haik!
- Ya, ya, ya, joder! Eta zuek gerra denporan etxien eon ziñein denpora dana?
- Bai zera, etxien! Hor sartu zirenien etxien... sartu ta hurrengoko egunien mezie emoten abadie elixan ta nau gengozen, ta lelengoko kañonazoa elixara sartu eben!
- Zeu barruan zeontzela?
- Gau barruan gauzela! Baia sartu ez zan ein, horman jo eben ta han, horma ba, horma sendoak, eta ez eben apurtu hormie, zulo apur bet iñ eben. Hori zan San Andres egune, hogeta hamarra. Ta gero beste hillen lauen, urten gendun, horra, ba gaure, eiten (aiten) baserridxe hor egoana, ta han ez egoan iñor, Dionisio ta euren aitak eta danak joanda eguazen, ta hor gelditu giñen behidxekin ta ididxekin ta...
- Olalden?
- Olalden, Nafarratetik iges einda ganau gustidxekin!
- Zenbat ganau zeukatzuein orduen?
- Ez dakit, asko! Baia dana kendu biher! Bueno, danak, danak ez, bi ez gemezen /ezkemezen/ kendu! Ta gero horti, ba, hor bagauzela, hor baserridxen, etor zan abioneta bat, ta buelta ta buelta etxe ganen ebillen, ta, dios! Nire arreba bat Nafarraten jaidxo zana, naure aurrekoa, urten gindun etxetik, ta ikusi ginduzen, sartu giñen han kuneta baten, bueno, soluetan ta, zelan egoazen mugak inda...
- Trintxerak edo?
- Bai, han etxunda gelditu giñen, bonba bat bota euskun! Mokil-lurre guztidxe gaure ganetik, metrallik ez euskuen jo!
- Kontxo!
- Hortxe bertan!
- Zuek zibilak han, eta abionetiak bonbia zeuei?
- Ta gero, hurrengoko egunien juan giñen Ubidera!
- A, Olaldetik hanka egin zebein!
- Ubidetik Ubidera, etxie... begitu geben han ea nora juan geinken, ta Nafarraten egon zan gia, Jaime, haren etxera! Ta han be, ba zortzi egun edo holakoren bat ein gemezen, ta handik Zeanurire!

10. Zeanuriko bonbardaketa

- **Erref**: LEG-006/011
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:29:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Idiak Ubiden kendu zituzten; behi gehienak, berriz, Zeanurin. Zeanurin izugarrizko bonbardaketa jasan zuten, Barazarreko atzera-egitean. Bere lagunaren emaztea hil zen bonbardaketan.

Transkripzioa
- Ta ya Zeanurin ba, kendu ginduzen behidxek eta ididxek eta... beno, ididxek Zeanurin... edo ez, Ubiden! Ta behidxek, batzuk Zeanurin, ta bi itxi nemezen! Behi bi! Ta Bilbora eruan nemezen!
- Behidxak?
- Behidxak! Bi! Zeanuriko horko Barazargo erretiradie izen zanien, Zeanurikoa bildurgarridxe izen zan! Joer! Han tarrazan milizianuek handi

Barazardi behera... dana bonbaz gelditu barik... ez dakit /eztait/, bonbardeo itzela izen zan ha! Ta horren ama, Lolen ama eridu euren, orduen Undurragan eguazen hauk, gu Alkiber, barrio Alkiber, orain presatxo bat inda dau han...
- Nun hori?
- Alkiber, Zeanurin! Hori ikusita eukiko dozu /eukikozu/ horti pasau bazare Barazardi!
- Bai, baiña gutxittan! Pare bat aldiz...
- Han Barazar... idxa Zeanurire baiño apur bet lehenautxuau dau hori presa txikidxori! Ta han egoan makiñaz etxe bat, ba, elektrizidadie eiten eurien / eiteurien/ han ur-saltuagaz, ta han etxe ondoan eridu euren ama, ondiño, ba, ume bat euki eben, ba, zortzi egun lehenau edo, hor Undurragan, ta eridu euren! Haren arropakin dxoien, ta beste Lolen arreba batek, neba batek, eroan umie eroan zaurien, ta umiari ez dxakon ezer gelditu, ta beste semiari bez! Baia orduen dana eriduek eta danak ospitaletan, ta atendidu ezin, ta enkangrenia sartu dxakon ta hil ein zan ensegida! Ama, ama elegantia! Dios! Nik ez nemen /enemen/ ezautu, baia hor daukuz fotografidxak, bera, bera urtebetegaz eguan hau, Lola.

11. Zeanuritik Bilbora, eta handik etxera

- **Erref**: LEG-006/013
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:32:29. **Bukatu**: 00:34:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Zeanuritik Bilbora joan ziren, oraindik geratzen zitzaizkien azken behi biekin. Martxotik San Pedroak arte egon ziren Bilbon. Oinez itzuli ziren etxera. Osaba ere Bilbon zegoen gordeta familiarekin, bere behi pare eta gurdiarekin joanda.

Transkripzioa
- Lola ta bere familidxa guztidxe ta Olaldekoak pe bai, ba horreik batera ibilten ziren beti, Dionisio eta horreik danok... Lezamara, Bizkaiko Lezamara, Araban be badau Lezama, baia handik gero Bilbora!
- Eta Bilbon danak alkartu ziñein atzera?
- Bilbon, ez horreik eguazen etxe baten ta gau bestien, baia kale baten, han be azertau giñen kale baten, “calle María Díez de Haro”, Bilbon! Ta han baserri bet egoan, nik... guk gaunken han lehenkusu bat, horko, Mendarozketakoa zan, hortxe bertan dau herritxo bat, ta horkoa zan nire lehenkusue, ta hara juan giñen. Ta hantxe zerkaute egoan oholakin-ta inda zerratu bat, ta baserri bat, ta han behidxek, han behi bi itxi nemezen, ta bat kendu in nemen. Ta handik esnie batzen nemen gaure lehenkusuentzat eta guretzat eta danontzat! Han egongo giñen denpora guztidxen!
- Zenbat denbora egongo ziñen Bilbon?
- Ba, ixen zan... hori martidxen juan giñen hara, egon giñen han... San Pedro bezperan etorri giñen hona, oiñez, Bilbotik hona!
- Behi batekin?
- Behi batekin ta, osabak behi parejie euken osabak, Dionision aitek; Dionisio ta ni burdidxen atzetik, nire behidxe lotuta burdidxeri, ta berak burdidxen... behidxek! Ta Bilboraiño, behi parejie ta burdidxe koltxoiekin ta eroan eben osabak! Zelan, zer bizimodue geunken, e?

- Osaba zan Dionision aitta?
- Bai, ta han kale baten bizi giñen, ta...

12. Bilbotik basorik baso itzuli ziren

- **Erref**: LEG-006/014
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:34:41. **Bukatu**: 00:37:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Lehengusuarekin faxistak nondik ote zetotzen begira zegoela "Quinta Columna"koek tiro bat bota zioten. Kalean tiro egin eta hilda utzi zuten beste mutiko bat. Bilbotik basorik baso itzuli behar izan zuten Elosura. Lehenengo gaua Bedia herrian eman zuten.

Transkripzioa
- Horra sartu ziren... “junio” zelan esaten da euskeraz? Oin etxat gogoratzen!
- Guk bagilla!
- E?
- Guk bagilla!
- A bai? Horren hillen hamaretzidxan. Ta bixperan, bixperan edo egun bi lehenau edo, ba nire lehenkusi haugaz, bere alaba bategaz, han negoan miradorien, ba begire ia hor, faxistok ba batozela handi basarriti behera esaten euren /esateuren/ ta, begire ea ikusten ginduzen sartzen, ta, joe! Egoan han tableru bet, ba sendoa, holan bidxok, bat, alkarren ondoan... “Da!” Zer jo dau hemen! Zer jo dau? Bala bat, nauri bota ustien “kinta kolumnak” [ibili zien] botaten [daurezen]! Ta hori, esan dotsuten mutikoa erreketiek datozela sartu zana elixara Nafarraten, ha hil auren! Hareri buruen tiro bat emon utsien, ta han gelditu zan kalien!
- Koño! Eta zu baliak ez ziñun jo? Ez ziñun jo baliak?
- Ez, trabesañuen sartuta gelditu zan, barrure sartuta! Nauk begitu nemen ta, jode! Balie zuloa einda ikusten zan, balieri atzekaldia ikusten dxakon, basien baliei, batenbatek ni hiltera joan zan! Ba! Ematen badosta, akabo! Bertan geldituko nintzen!
- Susto ederra, ezta?
- Jode! Sustoa ba sustoagaz pasau zan, baia! Ze bizimodue pasau dun guk!

- Eta orduan ya, Bilbotik burdixorri zeure behixa erantsitta, eta zeu burdixen atzetik Dionisiokin, eta buelta etxera?
- Bai, Zeanurin gatozela, han egoan mutilla... [... bat]... kamisa baltzagaz, ta buzoagaz, ta euskaraz danok eta badator ondora ta: “¡hable usted cristiano!”, pistoliegaz, holan! Hartuta, paparrien ipiñita!
- Ta kristianoz egin bihar, e!
- Kristiano, kristiano, kristiano, euskera da kristiano... erdera baiño gehidxao!
- Baña hari eziñ esan!
- E?
- Hari ezin esan, ezta?
- Hari ezin... Joi... hari! Joe!
- Eta ondo egin zeuen bueltie Bilbotik hona?

- E?
- Bilbotik hona bueltia ondo egin zeuein?
- Ona, ona, ez!
- Problema barik?
- Bidetik ba, kamiñotik ba ezin lidxen etorri ta, basoetatik eta, zubidxek botata egoazen ta! Ta osaba ba hor basoetan-ta ibillite egoan, ta hak ezautzen ebezen hor basoak-eta; ba, baekidxen nondi etorri, ta basotik etorri giñen, ba, [baso] ta Bediaraiño(n). Bedian gaba egin, gelditu gintzen, ta han ein gemen lo, ka! Orduen ez eban hotzik eiten, ta kanpoan etzun ta han lo!

13. Etxeak hutsik edo erreta aurkitu zituzten

- **Erref**: LEG-006/015
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:37:53. **Bukatu**: 00:40:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Osaba, lehengusua eta bera etorri ziren Bilbotik etxera behiekin. Elosuko etxea, osabarena, hutsik eta belarrez josita aurkitu zuten. Gregoriorena Nafarreten berriz, erreta. Aurreko azaroan soroetan ereindakoak ia heltzear aurkitu zituzten.

Transkripzioa
- Zenbat lagun etorri ziñein danera, bueltan?
- Zenbat?
- Zenbat lagun zeuek, bai?
- Ba hiru etorri giñen gu orduen, bestiek Bilbon gelditu ziren, beste hiru-lau egunien ondiñon danak!
- A, Dionisio zeu eta osaba?
- Bai! Eta salbokonduktuak-eta [ataraiteko] ta etorteko!
- Ya, ya, ya… eta zelan topau zeuein etxia?
- Ba etxie, ba, lohirik eta etxie bedarrak, bedarrak... ateraiñoko bedarrak eta…
Eta gauzak ostu be ein otsuein?
- Ba, bai, ez egoen ezebe!
- Hutsik?
- Hutsik! Ta gurie erreta etxie, Nafarraten be!
- Etxia erreta, gaiñera?
- Erreta ganera! Orduan gelditu giñen hemen! Etxien, ba han ez gaunken etxerik eta, ta nauk amagaz ta naure arreba bategaz erein neuen zementidxe esaten dxako hemen…
- Zemendixa, bai.
- Zementidxa! Ta ondo erein gendun! Solo bat bakarrik gelditu zan ereiteko, orduen ereiteko sasori /sasoi hori/ ba, hara ez nintzen /enintzen/ [atrebiditzen joatzen], hor, ta gelditu zan, ta garidxek-eta erein ta gehidxao begitu bez! Jo! San Pedro egunien juan giñen Nafarratera, ea zelan ikusten dauzen, ta heltzen idxa… egoazen! Heltzen!
- A, bai, e? Oseake zuk zemendixan garixori erein, eta ya ahaztu…!
- Garidxe ta orloa ta… gauza asko ereinda!
- Ta ez zien galdu, e?
- E?

- Ez zien galdu?
- Galdu? Ederrak eguazen! Ederrak-ederrak! Ta hak balidxo izen uskuen guri asko gero, ze hemen ba, gero erraziñoa ta ez egoan ba… txusko baltz bat, txikidxe ganera, ta guri sekule ez dxakun falta ogidxe, etxien iten gendun ta, baserriko ogidxek! Haundidxek!

14. Nafarratetik Elosura

- **Erref**: LEG-006/016
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:40:09. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Nafarrateko etxea galdu zutenez, Elosun hartu zuten beste etxe bat errentan. Gerra denboran, Gregorioren etxekoek lagundutako abade zaurituak gerraostean agurrik ere ez omen zien egiten. Bilbotik itzuli eta gero, Gregorioren osaba preso hartu zuten.

Transkripzioa
- Eta etxie ereiki zeuein edo?
- Ez, ez, guk… [hazi ta in gara]… hemen hau erosi giñuen, ta, beste seme bat, nire anaie hor bizi zan bertako neska bategaz ezkondu zan ta, hemen bizi giñen danok.
- A, oseake zu orduen etxe honetara etorri ziñan gerra ostian?
- Ez, ez, ez, ez, lau urtien beste etxe bat hartu [ginduen]…
- A, esan dozu, bai, esan dozu… Errentan, edo?
- Errentan.
- Eta beste etxiori be hemen Elosun edo Nafarraten?
- Gero hemen gaunkezen etxie, Nafarrateko lurrak, hemekoak, eta semie be ezkondu zan hemeko… aite ta ama hil utsiezen hareri be! Horrek horrek Martzeliño esan dogunak, aite ta ama hil utsiezen…
- “El buey” horrek?
- Arreba bategaz ezkondu, edo seme bat, alaba bategaz ezkondu zan. Ta horrek abadiorrek, hor, bitxidxe! Salbau gauk eta gero etorri giñenien Bilbotik, handi egun batzuetara, hortxe zubi… hemetik juaten giñen Legutianora, artez, atajoa egoan, ta errekie egoan hortxe behien, ta errekatik pasetako, ba zubi bet egoan, zubidxe ona eginda, ta zubidxen topo in gemen, ni handi honuntz, eta hemeti harutz bera. Ta beragaz hainbeste bider gauzak ekarten abade bateti bestera, ta meza laguntzen-ta egon, ta arpegire begitu be ez usten ein, abadiek, e!
- Zeuek han topau zeben… zeure aittek-edo topau ebena..?
- Aitek, ez! Aitek, ez! Xiprin aitek ekarri eben! Xiprin aitek ekarri eben gaure etxera!
- Eta zuek bialdu Lukura!
- Bai!
- Eta gero kasurik bez!
- Kasurik bez!
- Esker ona, e?
- Ha fasixtie zan, ta!
- Baiña fasixtie izanda be ez da…

- Bai! Orduen buf! Orduen... Orduko gauzak, zueik ez... ezta pentsau be egiten! Joder! Bueno! Ta gero osaba-ta etorri zanien, osaba Bilbotik hona, ba, egun batzuk iñ ebezen gaugez hor! Baia zortzi egun baiño lehen eroan aben ha be kartzelara! Dionision aite!
- Aita?
- Aita.
- Eta zer, euki ebein denbora asko kartzelan?
- Bai! Fua!

15. Elosuko hiltzailea epaitu eta urkatu egin zuten

- **Erref**: LEG-006/017
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:42:50. **Bukatu**: 00:46:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Gudarien "Batallón Araba"n, Legutioko mutil asko egon ziren, eta denak bizirik itzuli. Gerraostean, salaketa gogorrak jasan zituzten. Elosuko hiltzailea herrira itzuli zen, arreba baten etxera. Guardia Zibilek atxilotu zuten bertan; eta, epaitu ondoren, urkatu egin zuten.

Transkripzioa
- Gero... hori, hemen denuntzidxak eguazen, gogorrak! Ta eguazen mutil asko, gerran hemen ibili ziren gudaridxetan "Batallón Araba"n ez dakit / eztait/ zenbat eongo ziren hemen herrikoak! Batallón... Arabako batalloi bat egoan, “Batallón Araba”.
- Gudarixena?
- Gudaridxena! Ta han egoazen asko, ta ez zan /etxan/ bat be hil, e! Hemekoa herrikoa bertakoa, eta...
- Baña gero egurra, ezta?
- Jo, ba! Danak hogeta hamar urteko kondenakin ta! Gero negue sartu zan, ta negue sartu zanien, hori Martzeliño, ez zan ba bertara herrire etorri barriro? Hortik Santanderretik edo kanpo-konzentraszño batetik ihes einda hona bertara! Arreba bat euken hor ezkonduta, ta haren etxera etorri zan. Ta haren gizonak bentanatik teillatutxo bat labara egoan, tellature bajatu, ta gabien ihes in, ta parte emon eben, ta goarda zibillek harrapau auren hor, bertan etxian!
- Eta eruen euein?
- E?
- Eruen euein?
- Bai! Kartzelan Gasteizen eon zan, ta gero eroan auren Donostira, hor fuerte bat dau, Guadalupe edo zelan esaten dutsie hor?
- Bai, izan leike...
- Horra eroan auren! Ta han deklarau eben berak, idxa ez dakit /eztait/ ba ze... abaderen batek hartu eben ta deklarau utsen abadieri zer iñ eben. Ta horrek abadiorrek, ba, horreik be, horreik prohibidute eukien baia...
- Sekretua!
- Deklarau iñ eben! Ta horrek balidxo izen eben hemeko herriko jentientzat! Asko! Ze hemen egoazen hogeta hamar urteko, ta danak hak deklarau ebenien, ba... ha gero urketu ein auren!
- A, “El buey” hori?

- Bai!
- Eurak? Guarda zibillak?
- Guarda zibillak ez, Franconak!
- Franconak!
- Hor juizidxoa ein utsien ta urketu iñ auren!
- Hamazazpi lagun garbittu ta gero!
- Bai...
- Bueno, horreik dakigunak, ezta?
- Bai... andrak eta! Jode! Ta beste mutil bat ni baiño urte bi zaharragoa zan! Mutikoa ondiño, jo, elegantia, dios! Ha be hil!
- Tiroz hiltten zittun?
- E?
- Tiroz?
- Bai! Ta hamazazpi sartu aurezen ta gero han atara auriezenien kalaberak horra kanpusantura ekarri ginduzen danak, eta gero beste bi gehidxao arkitu ziren han! Ta esaten auren gudari bi negau in zirela hareik hilten, ta aurek be aurekin hil!
- Beak? Buey horrek? Oseake merezi euen orduen urkaketia, ezta?
- Halan esaten auren, ez dakigu egidxa ala guzurra ala zer ixengo zan! Ta hemen batzuk alde batetik, bestiek bestetik, danak be hilten jentie!
- Anae-arreben artien burrukan!
- Ba! Gerra, gerrak, gerriek ez dauko gauza onik!
- Ez dauko, ez dauko!
- Gerrak ez daukie gauza onik!
- Bueno, bueno! Bueltau gaittezen oin pittin bat atzeratxuau! Gerria hasi aurretik zu eskolan ta zebitzela...

16. Azienda askoko etxea, Gregoriorena

- **Erref**: LEG-006/018
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:46:41. **Bukatu**: 00:49:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Behiak, behorrak, ahuntzak eta ardiak zituzten gerraurrean. Ahuntz asko zituzten, baina mendian egiten zuten kalteagatik kendu egin behar izan zituzten. Behi esnea etxerako edo gazta egiteko erabiltzen zuten. Lurrak idiekin lantzen zituzten.

17. Kupoa ordaindu behar

- **Erref**: LEG-006/019
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:49:24. **Bukatu**: 00:50:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra denboran behi bi kendu zizkieten. Gerraostean garia eta patata entregatu egin behar izaten zuten.

18. Jatorduak; argindarra eta ura etxean

- **Erref**: LEG-006/020
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:50:32. **Bukatu**: 00:54:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Gosaltzeko esnea talo edo ogi zopekin; bazkaltzeko babarrunak txorizo eta urdaiarekin, eta afari pasada, udaran, askotan soroan egiten zuten. Etxeratzen zirenean, berriz, esne-zopak. Etxean urik ez zuten. Ezkondu eta gero, Elosuko alkate izan zenean, bideratu zuen etxeetara ura ekartzearena. Nafarreten ez zuten argindarrik, eta berak 20 urte zituela jarri zuten Elosun. Kandela, petrolio edota karburoaz baliatu izan ziren ordura arte.

19. Arropa garbiketa non egiten zuten

- **Erref**: LEG-006/021
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:54:06. **Bukatu**: 00:55:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Nafarreten arropa garbitzeko uraska jarri zuten Gregorio umea zela. Elosun errekara joaten ziren. Txerrien tripak ere errekan garbitzen zituzten.

20. Ontziolarako haritzak botatzen

- **Erref**: LEG-006/023
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:56:17. **Bukatu**: 00:59:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Baserrian bizi izan da beti Gregorio. Urtegia eraikitzen zihardutela, urpean geratuko ziren basoak botatzen jardun zuen berak, belauniko, trontzari eragiten. 16 metroko luzeran ebakitzen zituzten haritz enborrak Bilboko ontziolarako. Trontza "amerikanoa"k azkarrago ebakitzen zuen.

21. Behiak emankorragoak idiak baino

- **Erref**: LEG-006/025
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 01:01:57. **Bukatu**: 01:03:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Soro sail handiak zituzten, eta egun asko hartzen zituen lur guztiak idiekin lantzeak. Idi pare bi zituen. Basoan edota soroan lanean eten barik ibiltzen ziren. Behiek txahalak eta esnea ematen zutenez, idiak kendu eta behiak jarri zituzten uztarrian lanean.

22. Udalana edo "barbecho" eta "lieco"ak

- **Erref**: LEG-006/026
- **Iraupena**: 0:04:54. **Hasi**: 01:03:49. **Bukatu**: 01:08:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Traktoreek askoz ere lan gehiago egiten dute idiek baino. Erdarako "barbecho"ari euskaraz "udalana" esaten zaio. Urtebetez ezer erein gabe, baina udaberri eta udan goldatutako lurra dago udalanean. Lurra ukitu gabe urtebetez uztea, erdaraz "lieco" (lleco) omen da. Lehengo udalana ezkutatu zen, eta orain ongarriei esker lurrek ez dute atsedenik hartzen.

Transkripzioa
- Eta orduen, zu por ejenplo, konparaziño bat eitteko, idixekin edo behixekin, sorua, goldia pasaitten, zenbat denpora biher zeben idixekin, eta zenbat denpora traktorrakin?
- Gregorio: Buo... Traktorrak, oin, oingo kontuekin ez dau konparaziñorik! Orduen bisurkoa, bisurkoa da bi... surko bi eiten dauzena, ta oin laukoak dauz, asko gehidxau hartzen daurenak, ta seikoak be bai!
- Eta zuek zer eitten zeuein? Garixa aurreko urtien artua egondako lekuen ifiñi?
- Gregorio: Garidxa, ez, egon dan lekuen ez, garidxa egon dan lekuen ez da barriro garirik ereiten.
- Hori da. Artua, oseake...
- Gregorio: artoa, patatak,... eta...
- Artuakin ta patatiakin zea, kanbixauta?
- Gregorio: Bai. Ta udalanak inda dauzenak! Udalana. Udalana ez dakizu zer dan...? “Barbecho”! Erderaz “barbecho”. “Barbecho” esaten dutsie oin landu barik izten daurenari, eta hori badakizu zelan dauken izena erderaz? “Lieco”. Ta hori zelan, “barbecho”? “Barbecho, yo he hecho muchos barbechos, pero para el barbecho hay que maquinar en la primavera, y en verano darle otra vuelta... y aquello es...“udalana”! Udalana! Ta han, ha gero etortzen da, artariegaz joan, hazidxe bota, ta abonue bota ta, lurre ustel-ustel inda, ta han etorten dire garidxek garbi-garbi-garbi einda! Orduan holako asko iten zan, baiña oin ez da iten hori.
- Oin betik egurra lurrari be...
- Gregorio: oin dana erein ta... oiñ e... ba... abono asko dau ta beti ereinda! Garagarra kendu ta, ba, beste gauza bat erein ta...
- Baiña lehen udalana eitten zan...

- Gregorio: Bai, udalana, ba, lur halan, ba, eskastxuak ero zirenak, ba udalandu ta garidxe erein.
- Baiña orduen, udalana in bittartien, lurra geldirik, ezta? Deskantsuan…
- Gregorio: Bai! Urtebete deskantsuen!
- Eta gero hurrengo urtien gogor, ezta?
- Gregorio: Bai…
- Eta hurrengo udalana noiz itten xaten?
- Gregorio: Ba segun ze lur… edo zelan dauen, edo lohitu iten bada, edo…
- Udalana orduan, e? Eta esan dozu “lieku” zer da? Esan dozu “barbetxo” dala “lieku”?
- Gregorio: Guk beti, nik entzun dotsetez naure… lehenaukoari be… “lieco”! Erderaz “lieco”! “Dejar lieco”.
- “Dejar lieco”… eta “barbetxo” hori nok asmautakua da, ba? nundik etorrittakua?
- Gregorio: Ba barbetxo, oin esaten dutsie… holan ixten daurezenak, oin indemniziñoa daukie, barbetxo esaten dutsie, barbetxo, ta han ikuturik be ez, han dana bedarrez beterik.
- Urtebete ikutu barik euki, ezta?
- Gregorio: Ta oindiñon ordaindu iten dutsie ez dakit zenbat diru!
- A, bai?
- Gregorio: Bai.
- Lehen ez zan halakorik, ezta?
- Gregorio: Lehen ez, hori oin dau!... Barbetxo!
- Eta zuek udalana!
- Gregorio: Nik esan… askori esan dutsiet: “barbecho, edo zer da hori? Barbecho, ¿ya sabes tú lo que es barbecho? Te voy a decir en euskera lo qué nombre tiene: udalana! Y yo he hecho muchos barbechos, eh, para sembrar trigo. Pero eso no es barbecho, ¡eso es lieco!” “¡Cagüen diez! — pentsaten [daure]— ¡Y tendrá razón!”
- Oseake, orduen, barbetxo da gauza bat, eta lieko beste bat! Eta nahiz eta…
- Gregorio: Barbetxo…
- … da udalana.
- Gregorio: Ba… diferentzie handidxe! Oin ya ahaztu da idxa, iñok ez dau udalanik iten-ta!
- Orduen, esan dozu udalana dala udabarrixen buelta bat, eta udaran beste buelta bat?
- Gregorio: Bai, ta oin barbetxo ez dakit, ba, /eztaipa/ nondik atara in daurien hori lur hori barbetxo! Barbetxok daure landuta, garbitu dein lurre, ba, udalana!
- Baiña hortarako behintzet bi buelta emon bihar xako, ezta?
- Gregorio: bai!
- Nik enekixen holako konturik!
- Gregorio: ba oin badakizu!
- Bai, eske gurian garixa ni umia nintzanian ya…
- Gregorio: hor Bizkain ta Gipuzkoan ez, hor hori ez zan egongo… baia hemen… hemen, hemen bai, Araban asko udalana!

23. Nekazaritza lanak

- **Erref**: LEG-006/027
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 01:08:43. **Bukatu**: 01:12:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Nekazaritza lanaz azalpenak ematen ditu Gregoriok. Noiz eta nola ereiten zituzten zereal ezberdinak, ilar beltza, titoa, eroa, etab. Beste ganadu jatekoak ere bai.

24. Aita eta anaiaren kartzelako kontuak

- **Erref**: LEG-006/028
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:12:48. **Bukatu**: 01:14:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Elosuko beste etxe batera ezkondu zen; baina, aita bere etxean bakarrik geratu zenean, orain bizi diren etxera etorri ziren. Aita eta anaia Gasteizen kartzelatu zituzten, eta geroago Murgiako komentu batera eraman. Han aita meza-laguntzaile eta semea sukaldari jarri ziren eta laster askatu zituzten.

25. Gerra aurretik ereindako uzta

- **Erref**: LEG-006/029
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:14:38. **Bukatu**: 01:16:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Bilbotik bueltan, lehenengo Olalde baserrian egon ziren. Nafarreten gerraurrean ereindakoaren uzta Olaldera ekarri zuten. Seme bi izan ditu Lola Garmendiarekin. Emaztea oso dantzazale alaia izandakoa da.

26. Orduko erromeriak

- **Erref**: LEG-006/030
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 01:16:29. **Bukatu**: 01:18:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Erromerietara Legutiora eta Gopegira joaten ziren domeka arratsaldeetan. Mutilek ordaindu egiten zuten dantza egiteagatik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-05

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com